

2. USTEAK ERDIA USTEL?

justizia norentzat?

epaileak erabaki dezala

zorrotzago jokatu behar



Azken urteotan Justizia Administrazioaren zerbitzuen kalitatea hobetzeko ahalegin handia egin da. Hanka-sartzeak egiten dira, jakina, baina horiei aurre egiteko bideak ere zabaldu dira. Edonola ere, Justizia Administrazioak ez du oraindik irudi ona herritarren artean. Zergatik ote? Arrazoi sendoak al daude konfiantzarik ez izateko? Ikus dezagun.

justizia norentzat?

- Herritarrek justiziarri buruz duten iritzia kezka handia eragiten duen seinale dira sarritan horren gainean egiten diren inkestak. Jarraian dituzu horietako batetik ateratako hainbat datu. Batzuk egiazkoak dira eta beste batzuk ez. Zein ote dira inkestaren benetako emaitzak?

egia ✓ gezurra ✗

Herritarren % 28k soilik dute konfiantza Justizia Administrazioan.	<input type="checkbox"/>
Herritarren ia erdiek uste dute gaizki funtzionatzen duela.	<input type="checkbox"/>
Herritarren ustez azken urteotan lortu da bermatzea aberatsen eta pobreen aukerak berdinez izatea.	<input type="checkbox"/>
Herritarrek ondo baloratzen dute epaileen lana. Uste dute, oro har, ardura handiz hartzen dutela beren lana.	<input type="checkbox"/>
Justizia geldoa eta garestia da.	<input type="checkbox"/>

- Inkesta horretako hainbat datu Euskadi Irratian egindako mahainguru baten sarreran¹ aipatu zituzten. Entzun eta egiaztatu zuen erantzunak.
- Taldea osatu eta gero, irakasleak esango dizue ondoko alderdietako bati erreparatzeko. Taulan idatzi zergatik uste duzuen herritarrek horrela pentsatzen dutela?

Justizia geldoa da _____

Aberatsek abantaila dute

Handwritten response area with horizontal lines.

Herritarrek ez dute justizian konfiantzarik

Handwritten response area with horizontal lines.

Justizia Administrazioak gaizki funtzionatzen du

Handwritten response area with horizontal lines.



- Orain, beste talde baten taula idatzia jasoko duzue. Irakurritako ideiak topikoak edota funtsik gabeak direla pentsatzen baduzue, kontrakoa frogatuko lukeen adibidea idatzi dagokion koadroan.

Justizia ez da aparte geldoa

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Aberatsek ez dute abantaila nabarmenik

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Herritarrek badute konfiantza Jutzizia Administrazioan

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Justizia Administrazioak ez du hain gaizki funtzionatzen

.....

.....

.....

.....

.....

.....

- Talde berriak osatuko dituzue eta taulako aldeko eta kontrako arrazoiak elkarri aurkeztuko dizkiozue.



- Irratian egindako mahainguruaren atal bat entzun aurretik, saia zaitezte aurreikusten solaskideek zer esango duten honako gaiei buruz:

1. Jendeak zergatik jotzen du horrenbeste justiziara?
2. Herritarren artean sortzen diren arazoak zergatik ez dira beraien artean konpontzen, epaitegira jo beharrea?
3. Zer interesatzen zaie aseguru-etxeei?
4. Justiziaren zein arlotan ez dago atzerapenik?
5. Herritarra, oro har, zergatik ez dago konforme epaileen erabakiekin.
6. Zergatik ezin dira parekatu justizia eta osasun-zerbitzua?

- Talde bakoitzak aurreikusitakoaren berri emango diozue ikastaldeari.

- Irratsaioa² entzun ahala, solaskideek aurreko gaiez adierazten dutena jasoko duzue beheko taulan.

Jendeak zergatik jotzen du horrenbeste justiziara?	
Herritarren artean sortzen diren arazoak zergatik ez dira beraien artean konpon-tzen, epaitegira jo beharrean?	
Zer interesatzen zaie aseguru-etxeei?	
Justiziaren zein arlotan ez dago atzerapenik?	
Herritarra, oro har, zergatik ez dago konforme epaileen erabakiekin?	
Zergatik ezin dira parekatu justizia eta osasun zerbitzua?	



- Talde berriak osatzea komeni zaizue, ikaskideek zer jaso duten jakiteko.
- Eta zu bat al zatoz irratiko solaskideek aipatu dutenarekin? Horrela ez bada, esan zergatik ikaskideen aurrean.

zorrotzago jokatu behar

- Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2004ko apirilean egindako inkesta batean honako galderak egin zizkien Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrei. Ea asmatzen duzun jendeak zer erantzun zuen. Azpimarratu dagokiona.

Espainiako Justiziak duen funtzionamenduari buruz duzun iritzia nolakoa da, positiboa ala negatiboa?	<input type="text"/>
Orokorrean, epaileek azken sasoi honetan duela urte batzuk baino independentzia gehiago edo gutxiago adierazi dute botere politikoarekiko?	<input type="text"/>
Espainiako Justiziak delitu sexualetan ezartzen dituen sententziak eta zigorrak nolakoak dira, zorrotzak ala ez dira nahikoa zorrotzak?	<input type="text"/>
Eta emakumeen kontrako tratu txarretan?	<input type="text"/>
Eta politika eta finantza delituetan?	<input type="text"/>
Eta droga-trafikoan?	<input type="text"/>
Eta delinkuentzia-mafia handien kasuetan?	<input type="text"/>
Eta gaztetxo edo adin-txikikoen delinkuentzian?	<input type="text"/>
Eta terrorismoan?	<input type="text"/>



- Euskal Herriko Unibertsitateak egindako ikerketa baten berri ematen duen bideoa³ ikusiko duzue orain. Gero, taldeka jarrita, bi inkesten emaitzak nola interpretatzen dituzuen azalduko diezue ikaskideei: bene-benetan jendea neurri alternatiboen alde dagoen, Jaurlaritzak 2004an eta Unibertsitateak 2003an gizarte-maila ezberdineko jendea aukeratu ote duen...

- Azalpen egokiena aukeratuko duzue talde guztien artean, hizkuntza baliabideak (egiturak, lexikoa...) ere baloratuz.

Lined writing area with horizontal dashed lines.

Lined writing area with horizontal dashed lines.